

FUNTSEZKO SOZETATEAK

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko Porche Automobil Holding SE. enpresarekin egin dugu lan, haien diseinua eredu gisa erabiltzeko gure kotxearena sortzean.

Gainera, kotxeak hegan egiten duenean segurtasuna ziurtatu beharko dugu. Beraz, hainbat helikoptero eta hegazkin enpresekin hitz egin eta kolaboratuko dugu. Alde batetik, "SKy Helicópteros" enpresarekin, hauekin, hegazkinaren hegadak kotxearen sabaitik nola seguru atera ikasiko dugu. Eta "Airbus Corporate Jets" hegazkin enpresarekin kolaboratuz, hegan egiteko momentuan, seguru eta arazorik gabe egingo duela ziurtatzeko, hainbat froga eta kalkulu egiteko prozedura ikasiko ditugu.

Lehen esan bezala, gure lehentasuna bezeroen segurtasuna bermatzea da eta ziurtatu dezakegu merkatura ez dela produkturik aterako segurtasun hori lortu dugula frogatu arte. Hau da, ofizialki frogatuko dugu gure produktua segurua dela, "Ministerio de Transportes y Movilidad Sostenible"-k berrikusi, probatu eta autoa onartu egingo merkaturatze prozesua baina lehenago.

Gainera, kotxea elektrikoa denez, "Kinto One" kotxe elektrikoen enpresarekin hitz egin dugu, bateria ingurunearentzat onuragarria dela ziurtatzeko.

Hornitzaileei dagokionez, kotxearen barrualdeko tresna guztiak "Bosch" enpresak sortuko dizkigu. Enpresa honek hainbat produktu teknologiko eta makineria piezak sortzen ditu, haien artean kotxeen motorra eta barrualdean behar ditugun atal desberdinak. Kanpoaldeko edo kotxearen diseinua "Porsche"-ekin kolaboratuko dugunez, enpresa horrek emango dizkigu.

Gure produktuaren diseinua patentatzea erabaki dugu, inorrek erabili ez dezan. Berria denez, lehen urteetan eskaintzen dugun eskusibitate hori ziurtatuko dugu.

Kotxe honen atzean hainbat inbertsore daude. Adibidez, "Porsche" enpresa gurekin kolaboratzeaz gain gure proiektuan inbertitu egingo du. Gobernuak, gure proiektua etorkizuna duela ikusi du eta haien anbulantzietan erabiltzeko, inbertitzea erabaki du. Azkenik, "Bernard Arault" Frantziarra gure proiektuan etorkizuna ikusten duenez, inbertitzea erabaki du.